

**La ocupación de 2004 supera la barrera de 900.000 personas, y la tasa de paro desciende en ocho décimas, hasta el 7,8%**

El año 2004 continúa la línea de los últimos años de aumento del número de ocupados y disminución del número de parados respecto al año anterior.

**2004an gaintitu egin zen 900.000 landunen muga eta langabezia-tasa zortzi hamarren jaitsi zen, %7,8ra arte**

2004. urteak azken urteotako bideari jarraitu zion eta landunen kopurua handitu egin zen eta langabeena jaitsi, aurreko urtearen aldean.

*Euskal AEko lan-eskaintzaren zifrak. 2004/2003  
Cifras de oferta de trabajo en la C.A. de Euskadi. 2004/2003*



Iturria / Fuente: EUSTAT

Durante 2004 la cifra media de ocupados en la C. A. de Euskadi ha sido de 904.900 (+1%). La población ocupada ha aumentado en dos de los tres territorios históricos. En términos relativos destaca el aumento de Bizkaia (+2%), seguido por el de Gipuzkoa (+0,1%), mientras que Álava decrece (-0,6%).

2004an, landunen batez besteko kopurua 904.900koa (%+1) izan zen Euskal AEn. Landunak bi lurralde historikotan gehitu ziren: balio erlatibotan Bizkaiko igoera nabarmendu zen (%+2); haren atzetik Gipuzkoakoa (%+0,1), baina Araban gutxitu egin ziren (%-0,6%).

## El sector servicios y las mujeres absorben la creación de empleo

El volumen de ocupados ha aumentado sólo en el sector servicios, en donde asciende en 17.500 personas y en términos relativos un 3,2%. La industria ha perdido 3.800 empleos, sigue la agricultura y pesca con 2.900 menos y por último la construcción con 2.100.

Atendiendo a la situación profesional, el número de asalariados ha aumentado en un 2,6%. También en términos relativos, aumenta el número de empleadores (+4%). Sin embargo, el número de cooperativistas ha descendido de forma notable (-8,5%) así como el de autónomos (-6,4%).

El colectivo de mujeres ocupadas ha incrementado un 4,2%, con 15.300 empleos netos más.


## Zerbitzuen sektoreak eta emakumeek hartu zuten enplegu-sorkuntza

Landunen bolumena zerbitzuen sektorean bakarrik igo zen: 17.500 landun gehiago, %3,2 balio erlatibotan. Industriak 3.800 enplegu galdu zituen, nekazaritza eta arrantzak 2.900 eta eraikuntzak 2.100.

Lanbide-egoerari gagozkiolarik, soldatakoen kopurua %2,6 igo zen. Enplegatzaileen kopurua ere apur bat igo zen (%+4), balio erlatibotan. Hala ere, kooperatibistak (%-8,5) eta autonomoak (%-6,4) nabarmen gutxitu ziren.

Emakume landunak %4,2 gehiago izan ziren, 15.300 enplegu garbi gehiagorekin.

16 urte eta gehiagoko biztanleria landunaren bilakaera. Euskal AE 2003-2004. Urteko batez bestekoak. (Milakotan)  
Evolución de la población de 16 y más años ocupada. C.A. de Euskadi 2003-2004. Promedios anuales. (En miles)



## Baja el número de ocupados con contratos temporales un 3,7%

Por otro lado, dentro de los asalariados, el número de los contratados indefinidamente ha aumentado en un 4,5% en este año, mientras que el de los contratados temporales desciende un 3,7%. Por ello, la proporción de contratados indefinidos sobre el total de asalariados, 68,5%, resulta algo superior a la de 2003 (+1,3 puntos porcentuales).

Esta proporción en 2004, de casi 7 asalariados con contrato fijo de cada 10, no es uniforme en los colectivos estudiados. El porcentaje más elevado se da en los asalariados de 45 y más años (85,8%) y en la industria (78,5%).

En el otro extremo, están los más jóvenes (de 16 a 24 años) y los asalariados de la construcción, con un 22,7% y 51,9% de contratados indefinidos sobre el total, respectivamente. Las mujeres con contratos indefinidos rondan el 60%, 13 puntos por debajo de los varones.

## Aldi baterako kontratudun landunak %3,7 gutxitu ziren

Bestalde, soldatakoen artean, kontratu mugagabedunak %4,5 igo ziren urte horretan; eta aldi baterako kontratudunak, berriz, %3,7 jaitsi. Ondorioz, kontratu mugagabedunak soldatako guztien %68,5 izan ziren, 2003an baino zertxobait gehiago (ehuneko +1,3 puntu).

2004ko proportzio hori (10 soldatakotik, ia 7 kontratu finkodun) ez zen berdina izan aztertutako talde guztietan. Ehunekorik altuena 45 urteko eta gehiagoko soldatakoen artean (%85,8) eta industrian (%78,5) izan zen.

Beste muturrean, gazteenak (16 urtetik 24 urte artekoak) eta eraikuntzako soldatakoak kokatu ziren: %22,7 eta %51,9 kontratu mugagabedun, hurrenez hurren, soldatakoen guztizkoaren aldean. Kontratu mugagabedun emakumeak %60 inguru izan ziren, gizonezkoak baino 13 puntu gutxiago.

**Mugagabe kontratatutako landunen proportzioa, soldatako landunen guztizkoaren aldean 2003-2004.**

**Euskal AE. Urteko batez bestekoak. (% tan).**

Proporción de ocupados contratados indefinidamente sobre el total de ocupados asalariados 2003-2004.

C.A. de Euskadi. Promedios anuales. (En %).

	2003	2004
<b>Guztira / Total</b>	<b>67,2</b>	68,5
<b>Gizonezkoak / Hombres</b>	<b>72,0</b>	74,1
<b>Emakumezkoak / Mujeres</b>	<b>60,7</b>	61,1
<b>16 - 24 urte / años</b>	<b>27,4</b>	22,7
<b>25 - 44 urte / años</b>	<b>63,8</b>	65,5
<b>45 edo gehiago / años</b>	<b>85,0</b>	85,8
<b>Nekazaritza eta arrantza / Agricultura y Pesca</b>	<b>63,3</b>	58,2
<b>Industria</b>	<b>75,4</b>	78,5
<b>Eraikuntza / Construcción</b>	<b>42,3</b>	51,8
<b>Zerbitzuak / Servicios</b>	<b>66,7</b>	66,0

Iturria / Fuente: EUSTAT

### La tasa de paro baja del 8,6% al 7,8%

Junto con el aumento de la ocupación en el año 2004 se produce un descenso del número de parados en unos 7.900 respecto a 2003, un 9,4% menos. La tasa de paro se reduce al 7,8%, lo que supone 0,8 puntos porcentuales menos que en 2003.

El número de parados desciende en los tres territorios históricos: en Bizkaia 3.600, en Álava 2.800 y en Gipuzkoa 1.600 parados menos. La tasa de paro de 2004 en Álava desciende al 6,1%, en Gipuzkoa al 7,4% y en Bizkaia al 8,5%. Álava, que era el Territorio con mejor tasa de paro en 2003, continúa la tendencia en 2004 con 1,7 puntos porcentuales menos, Bizkaia desciende 0,8 puntos y Gipuzkoa reduce medio punto.

Si en 2003 la tasa de paro de Bizkaia se distanciaba 1,5 puntos porcentuales de la de Álava y 1,4 de la de Gipuzkoa, en 2004 la diferencia se amplía a 2,4 puntos en el primer caso y se reduce a 1,1 en el segundo.

### La brecha de la tasa de paro por sexo se reduce a 3 puntos porcentuales

En 2004 ha descendido el número de mujeres paradas en 7.400 mientras que el de los varones apenas varía. En términos relativos, el número de paradas mujeres ha descendido un 15,7%, y el de los varones el 1,3%. La tasa de paro masculina se mantiene en 6,5% y la femenina desciende al 9,5%, 2 puntos porcentuales menos en comparación con 2003. El diferencial de la tasa de paro por sexo se reduce en 2 puntos porcentuales, de 5 puntos a 3 con respecto al año anterior.

### Langabezia-tasa %8,6tik %7,8ra jaitsi zen

Enpleguaren igoerarekin batera, 2004. urtean langabeen kopurua jaitsi egin zen, 7.900 langabe gutxiago 2003aren aldean, hau da, %9,4 gutxiago. Langabezia-tasa %7,8ra murriztu zen, hau da, 2003an baino ehuneko 0,8 puntu gutxiago.

Langabeak hiru lurralde historikoetan jaitsi ziren: Bizkaian 3.600 gutxiago izan ziren, Araban 2.800 gutxiago eta Gipuzkoan 1.600 gutxiago. 2004ko langabezia-tasa %6,1era jaitsi zen Araban, %7,4ra Gipuzkoan, eta %8,5era Bizkaian. Araba izan zen langabezia-tasarik onena izan zuena 2003an, eta 2004an joera horri eutsi eta 1,7 ehuneko-puntu jaitsi zituen; Bizkaiak 0,8 puntu eta Gipuzkoak puntu erdi.

2003an Bizkaiko langabezia-tasa ehuneko 1,5 puntu urrundu zen Arabakotik, eta 1,4 Gipuzkoakotik; 2004an, aldiz, aldea 2,4 puntura gehitu zen lehen kasuan eta 1,1era murriztu bigarrenean.

### Langabezia-tasaren sexuaren arabeko aldea 3 ehuneko-puntura murriztu zen

2004an 7.400 gutxiago izan ziren emakume langabeak eta gizonezkoetan, ez zen ia aldakuntzarik izan. Balio erlatibotan, emakume langabeak %15,7 gutxitu ziren, eta gizonezkoak %1,3. Gizonezkoen langabezia-tasa %6,5ean mantendu zen eta emakumezkoena %9,5era jaitsi zen, hots, 2003an baino 2 ehuneko-puntu gutxiagora. Langabezia-tasaren sexuaren arabeko diferentziala ehuneko 2 puntu murriztu zen aurreko urtearen aldean, hau da, 5 puntutik 3 puntura.

## Disminuyen casi el 22% los parados que buscan su primer empleo

Disminuye el número de parados en los grupos de edad de 16 a 24 años (-12,6%) y en el de 25 a 44 años (-12,8%). En el grupo de 45 y más años, el que incluye menor número de parados, aumenta un 13,3%. La tasa de paro juvenil asciende al 20,4%, 1,8 puntos inferior a la de 2003.


Destaca el descenso del número de parados que buscan el primer empleo, que son 10.100 (-21,7%). Sin embargo apenas varía la cifra de los que llevan dos o más años buscando empleo, unos 14.000.

## Lehenengo lan bila ibili ziren langabeak ia %22 gutxitu ziren

Langabeak gutxitu egin ziren 16-24 urteko adin-taldean (%-12,6) eta 25-44 urtekoan (%-12,8). 45 urteko eta gehiagoko taldean (langabe gutxieneko taldean) %13,3 gehitu ziren. Gazteen langabezia-tasa %20,4koa izan zen, 2003koa baino 1,8 puntu txikiagoa.

Lehenengo lan bila ibili zirenak 10.100 izan ziren eta nabarmen jaitsi ziren (%-21,7). 2 urte edo gehiago lan bila ibili zirenen kopurua, aldiz, gutxi aldatu zen eta 14.000 izan ziren.

**16 urte eta gehiagoko biztanleria langabearen bilakaera. Euskal AE. 2003-2004. Urteko batez bestekoak. (Milakotan)**  
Evolución de la población de 16 y más años parada. C.A. de Euskadi. 2003-2004. Promedios anuales (En miles)



## La tasa de actividad femenina resulta todavía inferior a la de la Unión Europea de los 25, pero es superior a la media española

Desde un punto de vista comparativo, se producen algunas diferencias entre los indicadores del mercado de trabajo de la C.A. de Euskadi en 2004 y de la Unión Europea, con los 25 países (los últimos datos disponibles corresponden a promedios anuales de 2003).

La tasa de actividad vasca para la población de 16 y más años resulta ser algo inferior a la del promedio europeo (54,9% y 56,5%, respectivamente), mientras que la de los varones en ambos casos son casi iguales (65,3% y 65,1%). Sin embargo, la tasa de actividad femenina europea es 3,3 puntos superior a la de la C.A. de Euskadi (48,5% y 45,2%, respectivamente).

Además, la tasa de actividad femenina vasca, siendo más baja que la europea, resulta ser algo más elevada (más de medio punto) que en el promedio de España.

## Emakumezkoen aktibotasun-tasa artean ere Europar Batasuneko baina txikiagoa izan zen, baina Espainiako batez bestekoa baino handiagoa

Alderatze-ikuspuntutik, aldeak izan ziren 2004ko Euskal AEko lan-merkatuari buruzko adierazleen eta 25 herrialdeen Europar Batasuneko adierazleen artean (azken datu eskuragarriak 2003ko urteko batez bestekoak dira).

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren aktibotasun-tasa Europako batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa izan zen (%54,9 eta %56,5, hurrenez hurren); gizonezkoenak, ostera, ia berdinak izan ziren bi kasuetan (%65,3 eta %65,1). Europako emakumezkoen aktibotasun-tasa ere Euskal AEkoa baino 3,3 puntu handiagoa izan zen (%48,5 eta %45,2, hurrenez hurren).

Baina, gure erkidegoko emakumezkoen aktibotasun-tasa Europakoa baino txikiagoa izan arren, Espainiako batez bestekoa baino zertxobait altuagoa izan zen (ehuneko puntu erdi baino gehiago).

## La tasa de paro femenino en la C.A. de Euskadi se sitúa por debajo de la del conjunto del Estado y de la Unión Europea

Respecto a las tasas de paro, y en comparación con la Unión Europea (2003), las diferencias se invierten respecto al año anterior con 15 países, ya que la tasa de paro promedio de los 25 países es 1,2 puntos porcentuales superior a la de la C.A. de Euskadi.

Las tasas de paro de la C.A. de Euskadi son más bajas que en el promedio de España y de la Unión Europea, destacando las diferencias con la tasa española de paro femenino (5,4 puntos menos) y la tasa de paro masculino, casi un punto y medio inferior, en este caso también con respecto a la Unión Europea.

En comparación con el resto de las Comunidades Autónomas, la tasa de paro de la C.A. de Euskadi ocupa el quinto lugar en el ranking de menor a mayor tasa. Navarra, Aragón, La Rioja y Madrid copan las primeras posiciones con tasas del 5%, 5,4%, 5,5% y 6,5% respectivamente.


## Euskal AEko emakumezkoen langabezia-tasa Estatukoaren eta Europar Batasunekoaren azpitik kokatu zen

Gure langabezia-tasa Europar Batasunekoarekin alderatuz (2003), aurreko urtean 15 herrialdeekin izandako aldeak alderantzizkatu egin ziren, 25 herrialdeen batez besteko langabezia-tasa Euskal AEkoa baino 1,2 ehuneko-puntu handiagoa izan baitzen.

Euskal AEko langabezia-tasak baxuagoak izan ziren Espainiako eta Europar Batasuneko batez bestekoak baino. Nabarmendu egin ziren Espainiako emakumezkoen langabezia-tasarekiko (5,4 puntu gutxiago) eta gizonezkoen langabezia-tasarekiko (ia puntu eta erdi gutxiago), kasu honetan Europar Batasunarekiko ere.

Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz, Euskal AEko langabezia-tasa txikienetik handienera doan tasen rankingean bosgarren postuan kokatu zen. Nafarroak, Aragoik, Errioxak eta Madriliek bete zituzten lehenengo postuak %5, %5,4, %5,5 eta %6,5eko tasekin, hurrenez hurren.

**Aktibotasun- eta langabezia-tasak Europar Batasunean (25), Espainian eta Euskal AEn (%tan)**  
Tasas de actividad y paro en la Unión Europea 25, España y C.A. de Euskadi (En %)



Iturriak / Fuente: EUROSTAT: EFT 2003; INE: EPA 2004; EUSTAT: BJA/PRA 2004

## La proporción de contratados indefinidos entre los asalariados de la C.A. de Euskadi (68,5%) sigue siendo inferior a la existente en la Unión Europea

En el campo de la ocupación se sigue produciendo una diferencia muy notable en cuanto a la estabilidad en el empleo. Según la última Encuesta de Fuerzas de Trabajo de Eurostat (2003), en el promedio de los 25 países europeos, casi 9 de cada 10 asalariados tienen un contrato indefinido (87,1%) y, en general, en todos los países esta proporción resulta superior al 80%, salvo en España (69,4%) y Portugal (79,4%)

## Kontratu mugagabedunek Euskal AEko soldatakoetan duten proportzioa (%68,5) oraindik ere Europar Batasuneko baino txikiagoa da

Enpleguaren arloan, oraindik ere alde oso nabarmena dago enpleguaren egonkortasunari dagokionez. Azkeneko Lan Indarren Inkestaren arabera (2003), Europako 25 herrialdeen batez bestekoan 10 soldatakotik ia 9k (%87,1) kontratu mugagabea zuten, eta orokorrean, herrialde guztietan proportzio hori %80tik gorakoa izan zen, Espainian (%69,4) eta Portugalen (%79,4) izan ezik.



**G L O S A R I O****Población activa:**

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia aportan un trabajo para producir bienes y servicios (población ocupada), y las que carecen de empleo en ese momento, lo buscan activamente y están disponibles para incorporarse a él (población parada).

**Población ocupada:**

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia han estado trabajando durante al menos una hora, a cambio de una retribución (salario, jornal, beneficio empresarial, etc.) en dinero o especie o sin retribución como ayuda familiar. También son ocupados quienes teniendo trabajo han estado temporalmente ausentes del mismo por enfermedad, vacaciones, etc.

**Población parada:**

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia no poseen un empleo asalariado o independiente, han buscado uno de forma activa en las últimas cuatro semanas y están disponibles para trabajar en las siguientes dos semanas.

**Población inactiva:**

Población que no está ocupada ni parada; incluye a las personas que realizan las tareas del hogar, los que cursan estudios, los jubilados, los pensionistas, los rentistas y los incapacitados.

**Tasa de actividad de un grupo:**

Proporción de activos sobre la población de 16 y más años de ese grupo. EUROSTAT calcula las tasas de actividad para la población de 15 y más años.

**Tasa de paro de un grupo:**

Proporción de parados sobre el total de activos de ese grupo.

**G L O S A T E G I A****Biztanleria aktiboa:**

16 urteko edo gehiagoko biztanleria da, ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko erreferentziako astean lan egiten dutenak (biztanleria landuna) eta momentu honetan lanik ez dutenak, lan bila aktiboki dabiltzanak eta lanerako prest daudenak (biztanleria langabea).

**Biztanleria landuna:**

16 urteko edo gehiagoko pertsonak, aipatu astean zehar gutxienez ordu betez lan egin dutenak dirutan edo gauzatan emandako ordainsari baten truke (soldata, egunsari, enpresa-onura, e.a.) edo ordainsaririk gabe familia-laguntza gisa. Langile bezala hartzen dira, halaber, lana edukita gaixotasuna, oporrak edo beste zerbait dela medio lanera aldi batean joan ez diren pertsonak.

**Biztanleria langabea:**

16 urteko edo gehiagoko biztanleria, erreferentziako astean soldatako lanik edo lan beregainik izan ez, azken lau asteetan aktiboki lan bila ibili eta hurrengo bi asteetan lan egiteko prest dagoena.

**Biztanleria ez-aktiboa:**

Landuna edo langabea ez den biztanleria; hor sartzen dira etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiratuak, pentsiodunak, errentadunak eta ezgaituak.

**Talde baten aktibotasun-tasa:**

Aktiboen kopurua, talde bateko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren aldean. EUROSTATEk 15 urte eta gehiagoko biztanleriarentzako kalkulatu dituzten aktibotasun-tasak.

**Talde baten langabezia-tasa**

Langabe-kopurua, talde horretako aktiboen guztizkoaren aldean.

La Encuesta de Población en Relación con la Actividad (PRA) es una operación estadística que viene realizándose por Eustat desde 1985. Tiene por objeto fundamental producir información continua sobre la oferta del Mercado de Trabajo de la C.A. de Euskadi. Trimestralmente da cuenta de la población ocupada, parada e inactiva, así como de sus variaciones y de las principales características sociales de estos colectivos.

Los datos de la PRA están sujetos a errores de muestreo derivados de la utilización de una muestra formada por 3.750 familias de la C.A. de Euskadi, a las que se encuesta cada trimestre, formando un panel. Los errores de muestreo de la PRA están en [www.eustat.es](http://www.eustat.es) a disposición de los usuarios interesados. El cálculo de la población ocupada puede tener una oscilación de  $\pm 2,6\%$  del valor publicado y el de la población parada del  $\pm 8,1\%$  (datos de 2004, a un Nivel de Confianza del 95%).

Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta (BJA), Eustatek 1985etik egiten duen estatistika-eragiketa da. Helburu nagusitzat dauka Euskal AEko lan-merkatuaren eskaintzaren gaineko aldian behingo informazioa eskaintzea. Hiru hilean behin, biztanleria landunaren, langabearen eta ez-aktiboaren berri ematen du, bai eta talde horien gorabehera nagusien eta gizarte-ezaugarrien berri ere.

BJAren datuak laginketa-akatsi atxikita daude, Euskal AEko 3.750 familiek osatutako lagin baten erabilpenetik ateratako akatsi, hain zuzen. Familia horiei hiru hilean behin egiten zaie inkesta, panela osatuz. BJAren laginketa-akatsak [www.eustat.es](http://www.eustat.es) helbidean daude, erabiltzaile interesatuen eskueran. Biztanleria landunaren kalkulak  $\pm 2,6\%$ ko gorabehera izan dezake argitaratutako balioan; biztanleria langabearenak, berriz,  $\pm 8,1\%$ koa (2004ko datuak, %95eko konfiantza-maila).

**INFORMAZIO-ESKAERA / SOLICITUD DE INFORMACIÓN**

**Galderaren bat egin nahi baduzu edo datu gehiago behar baduzu, hemen aurkituko gaituzu:**

Para cualquier consulta o ampliación de los datos, pueden dirigirse a:  
**EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)**

Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 75 00

Fax: 945 01 75 01

e-mail: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

[www.eustat.es](http://www.eustat.es)



Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo dcl

